

5/02 IRIZPENA

seme-alabak dituzten familientzako diru laguntzak araupetzen dituen

Dekretu Proiektuaren gainean.

Bilbon, 2002ko ekainaren 5a

I.- AURREKARIAK

Apirilaren 18an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordera Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailaren idatzia sartu zen, non seme-alabak dituzten familientzako diru laguntzak araupetzen dituen Dekretu Proiektuaren gaineko txostena eskatzen baita, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.b) artikuluan ezarritakoa betetzeko.

Dekretu honen xedea familiei diru laguntzak ematea da, jaiotzen zaizkielako zein adoptatzen dituztelako, seme-alaben kopurua gehitzean gainera etortzen zaizkien aparteko zailtasunei aurre egiten laguntzeko, Seme-Alabak dituzten Familiei Laguntzeko Erakundeen Arteko Planaren xedeari laguntzera begira, hau da, euskal familiek libreki erabakitzen duten beste seme-alaba eduki ahal izan dezaten xedeari laguntzera begira.

Idazkia jaso eta berehala, Proiektuaren kopia Batzordearen Osoko Bilkurako kide guztiei helarazi zitzaizkien, beren proposamen eta iritzia bidal ditzaten eta dagokion Lan Batzordeari emateko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduko Arautegian ezarrita dagoen bezala, eta maiatzaren 10ean Gizarte Garapeneko Batzordea bildu zen Irizpen Aurreproiektuaren lehenengo zirriborroa baloratzeko eta bertan planteatzen ziren gaiak eztabaidatzeko.

Batzorde horrek ondoren 2002ko maiatzaren 15ean eta 23an izandako bileretan bakoitzean Irizpen Aurreproiektu bat aztertu eta eztabaidatu ostean, Irizpen Proiektu bat prestatu da, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurara helarazi eta gaurko egunean onetsi dena.

II.- EDUKIA

Seme-alabak dituzten familientzako diru laguntzak araupetzen dituen Dekretu Proiektuaren testua honelaxe osatuta dago: motiboen azalpena, hamazazpi artikulua, Aldi Baterako Xedapen bat eta Amaierako bost Xedapen.

Motiboen azalpena:

Atal honetan Gobernu Kontseiluak 2001eko uztailaren 3an onetsitako Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Erakundeen Arteko Planaren barruko Dekretua sartzen da. Eusko Jaurlaritzak bultzatu eta Foru Aldundiek eta Eudelek partaidetza aktiboa izan duteneko Dekretua jaiotza tasen igo daitezen eta laneko eta familiako bizitzak bateratu ahal izan daitezen politikak aurrera eraman beharri erantzuteko, eta familiek nahi duten seme-alaba kopurua edukitzeko aurkitzen dituzten diru arazoak eta gizarte eta laneko oztopoak ezabatzeko asmoz egin da.

Plan honek, besteak beste, diruzko zenbait neurri aurreikusi ditu, eta Dekretu Proiektuak diru laguntzen bi modalitate zehatz araupetzen ditu, hau da, bigarren seme-alabaren eta hurrengoan jaiotza zein adopzioarengatikoa laguntza, eta erditze



C E S

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea
Consejo Económico
y Social Vasco

zein adopzio ugari kasuetarako laguntza. Hartara, subentzio izaera duen araua da, Autonomia Estatutuak EAeri gizarte laguntza, erkidegoaren garape, emakume izaera eta haur, gazte eta hirugarren adinekoen politika gaitan aitortzen dizkion eskuduntzen babesean emandakoa.

Xedapenen gorputza:

1. Artikuluak Dekretuaren xedea ezartzen du: Eusko Jaurlaritzak familiei jaiotzen zaizkien zein adoptatzen dituzten seme-alaben ondorioz gainera etortzen zaizkien aparteko zailtasunak artatzeko sostengu ekonomikoa emateko banatuko dituen laguntzen markoa arautzea, familiek libreki nahi dituzten seme-alabak eduki ditzaten errazteko. Era berean, diru laguntzaren xede izan ahal izango diren egoerak mugatzen dira: bigarren haurraren zein hurrengoan jaiotza edo adopzioa, eta erditze eta adopzio ugariak.

2. Artikuluak arauaren aplikazioaren esparrua mugatzen du, Dekretuan aurreikusitako jarduerengatik diru laguntza jaso ahal izateko epearen lehenengo eguna 2002ko urtarrilaren 1a izango dela finkatuz. Gainera, EAEko udalerrri batean erroldatuta egon beharko da, diru laguntza eskatzen den eguna baino urtebete lehenagotik gutxienez, diru laguntzak eskuratzeko eskubidea izateko.

3. Artikuluak laguntzetarako eskubidea izango duten pertsonak eta, zehazki, haur berrien gurasoek laguntzei eutsi ahal izango dieteneko egoerak definitzen ditu.

4. Artikuluak seme/alaba berri baten jaiotza edo adopzioarengatik jasoko diren laguntzen zenbatekoa ezartzen du, seme/alabaren ahalmen urritasun egiaztatuko kasuetarako diru laguntza osagarriak ere aurreikusten direlarik. **5. Artikuluak** ere diru laguntzen zenbatekoak zehazten ditu, oraingoan adopzio edo erditze ugarietako kasuetarako, berriro ere ahalmen urritasuna diru laguntza handiagoak jasotzeko suposamenduzat jotzea aurreikusiz.

6. Artikuluak diru laguntzen eskariak egiteko baldintzak eta epeak finkatzen ditu, baita diru laguntzaren xede den egoera egiaztatzeko beharko den dokumentazioa ere, eta **7. Artikuluak**, aldi berean, hamar eguneko epea aurreikusten du eskabide horretan izan litezkeen hutsune edo akatsak zuzentzeko.

8. Artikuluak espedienteak kudeatu eta ebazteari, egin daitezkeen errekurtsioei eta ezarritako epeei buruzko alderdiak arautzen ditu, baita diru laguntzako eskabide bakoitzaren gainean ebaztitakoaren berri zabaltzeko prozedura ere.

9. Artikuluak diruz lagungarria den kasu bakoitzean ordaintzeko modua deskribatzen da, baita diru laguntzak jaso ondoren laguntza indarraldiaren hurrengo urteetan diruz lagungarria den egitatea justifikatu beharra ere.

10. Artikuluak laguntzen konkurrentziaren ahalbidea aurreikusten du, Dekretu honetako 4. eta 5. artikuluetan araututako suposamenduak bateraezinak direla ezarriz.

11. Artikuluak laguntzen aldarazpenaren edo amaitzearen suposamenduak ezartzen ditu, laguntzak eragin zituzten baldintzak betetzeari uzteagatik edo ezarritako epeak ez betetzeagatik.

12. Artikuluak Dekretuaren xedea betetzera bideratutako diru baliabideen jatorria arautzen du, eta lortu nahi den helbururako kreditu egokia eta nahikoa ez izateko ahalbidea aurreikusten du.

13. Artikuluak Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailari ematen dizkio Dekretuak lortu nahi dituen helburuak betetzen direla bermatzeko behar diren ikuskaritza eta kontrol ekintzetarako ahalmenak.

14. Artikuluak diru laguntzen onuradunek diru laguntza eragin zuen egoeraren funtsezko aldaketak jakinaraztearen, diru laguntzaren xedearren eta aplikazioaren bermearen eta hori dela-eta eskatzen zaien informazio guztia ematearen gaineko betebeharrak zerrendatzen ditu.

15. Artikuluak Dekretu honek araupetzen dituen laguntzak eskatzen dituzten pertsonak zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak betetzea egiaztatetik salbuetsita daudela dio.



C E S

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzardea

Consejo Económico
y Social Vasco

16. Artikuluak onuradunek EAEko Ogasun Orokorraren Antolamenduko Printzipioei dagokienez indarrean dagoen legedian ezarritako suposamenduak betetzen ez dituzteneko kasuak aurreikusten ditu, eta 17. Artikuluak halako kasuetan eskuratutako laguntzak itzultzeko prozedura zein den ezartzen du.

Aldi Baterako Xedapen Bakarrak Eusko Jaurlaritzak 2002an lege ekimen honen xedeak betetzeko bideratuko dituen zenbatekoak jakinaraztea aurreikusten du, Batzarde honen irizpenerako aurkeztu den Dekretu proiektuan kopuru horiek zuziz dauden arren.

Amaierako Lehenengo Xedapenak Dekretu honetan administrazioaren prozedurari dagokienez aurreikusi ez denerako ordezko erregimen juridikoa ezartzen du.

Amaierako Bigarren Xedapenak Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailburuari Dekretua garatu eta betearazteko behar diren xedapenak hartzeko eskumena ematen dio.

Amaierako Hirugarren Xedapenak, halaber, Sailburu horri ematen dio diru laguntzen zenbatekoak eguneratzeko eskumena.

Amaierako Laugarren Xedapenak Dekretu honen aurka jar daitezkeen errekursoak definitzen ditu eta, amaitzeko, **Amaierako Bosgarren Xedapenak** Dekretua Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean indarrean jarriko dela ezartzen du.

III.- OHARTARAZPENAK

Ohartarazpen orokorrak

I – Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Erakundeen Arteko Plana

Lehenik eta behin, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzarde honek irizpenaren xede den Dekretu hau sartzen deneko Seme-Alabak dituzten Familiei Laguntzeko Erakundeen Arteko Planaren gainean kontsultarik egin zaiolako. Gure ustez, hedapen handiagoko Plan baten atal izanik, gure irizpenaren mende jarri den dokumentu hau soilik aztertzeak ondorio partzialak eta testuingurutik kanpokoak ateratzera eraman gaitzake.

Gure iritziz, zuzentzen zaion jendea dela-eta halako garrantzi handia duen Erakundeen Arteko Plana gizarte eragileen partaidetza handiagoz egin behar zatekeen, baita benetako beharren ikuspegi integralaz ere. Eta, horren harira, Batzarde honek Jaurlaritzari Planak egokitzeko, eguneratzeko zein berrikusteko jasan lezakeen edozein prozesuren aurrean parte hartu beharko lukeela planteatzen dio.

II – Dekretu Proiektuaren balorazio orokorra

EGBk uste du unibertsaltasuna gizarte babeseko sistemenetan gai nagusia dela, modu orokorrean ekin behar zaiona.

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzarde honek, gizarte eskubideen gaitan, unibertsaltasun printzipio honekiko bere atxikimendua aldarrikatzen du baina, hala ere, esan behar dugu gure Autonomia Erkidegoan ezarri den gizarte babeseko sistema, zenbait kasutako adierazpen formala hor egon arren, ez dela unibertsalista. Hartara, familientzako laguntzak familien errenta mailari inola lotu gabe ematea sistemaren salbuespena da. ikusmira horretatik, irizpena mandako arauan aurreikusten diren familiarentzako laguntzek errentaren banaketa orekatuaren exijentzietan dagokienez arazoak sor litezaketek.

Bestalde, ez dugu ulertzen laguntza hauetarako erakunde eskuduna Gizarteratzeko Zuzendaritza izatea, zeren bere izenak laguntzen izatearen gaineko nahasmena ekar baitezake, izenak laguntzak eskatzen dituzten familiek zertan jasan



C E S

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea
Consejo Económico
y Social Vasco

5/02 IRIZPENA

behar ez duten nolabaiteko bereizkeria edo bazterkeria arriskua iradokitzen baitu. Ondorioz, Zuzendaritza horren izena aldatzeko edo Dekretuak xedatzen dituen helburuetara bideratuko den beste zuzendaritza bat sortzeko eskatzen dugu.

III – Erabilitako hizkuntza.

Batzorde honek generoaren aldetik sexu ñabardurarik ez daukan hizkuntza erabiltzeko eskatzen du, hau da, "la Directora" (8.2. artikulua) edo "el Consejero" (6.3. artikulua) esan beharrean neutroagoak diren "la Dirección" edo "la Consejería" jartzeko.

Ohartarazpen orokorrak amaitu ondoren, Euskadiko EGBk beharrezko irizten dio berariazko ohartarazpen hauek egiteari:

Berariazko ohartarazpenak

2. artikulua: Aplikazioaren esparrua. 1. Atala.

Artikulu honek laguntzak 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako jarduera diruz lagungarrietara mugatzen ditu. Batzorde honek, ordea, uste du muga horrek data hori baino lehenago jaiotako seme-alabak dituzten familientzako konparaziozko laidoa dakarrela, beraz, Dekretuak ezarritako baldintzak 2002ko urtarrilaren bata baino lehenago betetzen zituzten familiak ere hartzeko ahalbidea aztertzea iradokitzen dugu, horretarako behar den aurrekontu zuzkiduraz.

Hedapen hori egitekotan, uste dugu egokiena Dekretuan hedapen horren terminoak araupetuko dituen Aldi Baterako beste Xedapen bat sartzea litzatekeela.

2. Artikulua: Aplikazioaren esparrua. 2. Atala.

Dekretu proiektuak ezartzen du bertan aurreikusten diren laguntzak eskuratzeko nahitaezkoa dela EAko edozein udalerritako erroldan eskaria aurkezten den eguna baino gutxienez urtebete lehenago agertzea.

Euskadiko EGBk uste du, bigarren seme-alabaren eta hurrengo kasuetarako aldioroko prestazioen hedapenari dagokionez 4. eta 5. artikuluen gainean proposatu denaren haritik, betekizun hau ezabatu beharko litzatekeela.

4. eta 5. Artikuluak: Laguntzak seme-alaba berria jaiotzean zein adoptatzearengatik eta erditze edo adopzio ugariengatik.

Euskadiko EGBren iritziz, seme-alaba berria jaiotzean zein adoptatzearengatik aurreikusitako laguntzak oso urriak direla: 1.200 Euro bigarren seme-alabarengatik, eta 3.000 Euro hirugarrenarengatik ez direla familiaren aurrekontuan eragin nabarmena izango duten zenbatekoak, seme-alaba berria etortzeak dakartzen gastuei aurre egin behar zaienean. Diru laguntzen zenbatekoak handiagoak behar lukete, eta zenbait urtez luzatu beharko lirateke, jaiotza eta adopzio ugarietarako aurreikusita dagoen bezala. Gainera, ez da inolako laguntzarik aurreikusten lehenengo seme-alabaren jaiotzarako.

estela gertatzen da adopzio zein jaiotza ugarietarako aurreikusitako laguntzei dagokienez. Kasu hauetan diru laguntzak handiak dira eta 10 urtez luzatzen dira. Aurreko laguntzen aldean dagoen desproporzioa izugarria da: bigarren seme-alaba edukitzeak 1.200 Euroko laguntza dakarren bitartean, bi seme-alaba batera edukitzeak guztira 39.000 Euroko laguntza dakar (33 aldiz gehiago), eta bata bestearen ondorengo hiru seme-alaba edukitzeak 4.200 Euroko laguntza dakarren bitartean, hiruak batera edukitzearengatik guztira 69.000 Euro aurreikusten da (16,42 bider gehiago). Bi edo hiru seme-alaba



C E S

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea
Consejo Económico
y Social Vasco

5/02 IRIZPENA

batera edukitzeak dakarren ahalegin izugarria kontuan izan behar den arren, ez zaigu iruditzen diru laguntzetan dagoen aldeia justifikatuta dagoenik. Ondorioz, ematen du Dekretu honek diru laguntza handiak jaiotza edo adopzio ugarien ez-ohiko kasuetarako soilik ematearen alde egiten duela, kasurik ohikoenetarako oso laguntza txikiak eskainiz.

Horren harira, Batzorde honek artikulua hauetan jaiotzengatik aurreikusitako laguntzak osatzeko, familiei seme-alaba bakoitzak 18 urte izan arte hileko sorospen bat ematea proposatzen du, Alemania bezalako herrialde aurreratuetako joerarik aurrerakoien ildotik, betiere seme-alaba horiek familia batasuneko kide izaten jarraitzekotan.

Amaitzeko, 4. Artikuluaren goiburua aldatzea iradokitzen dugu: "Laguntzak seme-alaba berriaren jaiotza edo adopzioarengatik" barik "Laguntzak bigarren seme-alabaren edo hurrengoan jaiotza zein adopzioarengatik" jartzea, Dekretuaren testuan arestian erabilitako zendapenaren berdina izateko eta, bestalde, seme-alaba berriaren jaiotza edo adopzioa lehenago hildako beste batekin nahas daitezeneko egoerak saihesteko, esaterako.

6.2.f. (Eskariak eta dokumentazioa), 10.2. (Laguntzen konkurrentzia) eta 11 (Laguntzen aldarazpena eta iraugitzea) Artikuluak

6.2.f. Artikuluan, laguntza eskatzeko orduan, eskatzaileen zinpeko aitortpena exijitzen da, non edozein Herri Administrazioarengandik xede eta helburu berarekin beste laguntzarik jasotzen ez dela adieraziko baita. Jasotzekotan, zein Herri Administrazioarengandik eta zenbateko laguntza hartzen den agerraraziko da. Eskatuta eta ebazteko baldin badago, hori ere jakinaraziko da.

Bestalde, 10.2. Artikuluan esaten da laguntza hauek Herri Administrazioek xede berarekin ematen dituzten beste batzuekin bateragarriak izango direla. Bi artikulua hauen idazketak (6.2.f. eta 10.2.) Administrazio desberdinen laguntzen konkurrentziarik izan daitekeen ala ez zalantzak izatera eraman dezakete.

Denarekin, artikulua horiek poliki irakurrita, pentsarazten digu konkurrentzia hori 11. Artikuluan aipatzen diren irizpide eta muga batzuen mende gerta daitekeela. Ez da, ordea, irizpide eta muga horiek zeintzuk diren zehazten, beraz, zehazteari komenigarri deritzogu.

12. Artikulua: Baliabide ekonomikoak

Artikulu honek aurreikusitako laguntzak ematea aurrekontuetan nahikoa baliabide izatera mugatzen du eta, aldi berean, familien artean, seme-alaba jaiotzen den unearan arabera, desberdintasuneko elementu nabarmenak sartzen dituela irizten diogun irizpide kronologikoa ezartzen du, eskubidezko bere izaera kolokan jarritz. Ondorioz, egokiena ezabatzea litzatekeela uste dugu.

15. Artikulua: Zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioen betetzea egiaztagiriz frogatetik salbuestea

erga eta Gizarte Segurantzako obligazioen betetzea egiaztagiriz frogatetik salbueste honi dagokionez, herri laguntzetan oro har egiaztapena eskatzen denez, gure ustez, Dekretu honek salbuespena sostengatzen deneko lege euskarria beren beregi aipatu beharko luke.

Aldi Baterako Xedapen bakarra



C E S

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea
Consejo Económico
y Social Vasco

5/02 IRIZPENA

Dekretuaren garapenerako aurrekontu zuzkidurarik finkatzen ez duen arren, Seme-Alabak dituzten Familiei Laguntzeko Erakundearen Arteko Planaren arabera, 12.000.000 Euro izango dira 2002rako. Lehenengo seme-alaba eduki zuten EAEko emakumeen erdiak (4.968), 2002an bigarrena izango balute, eta 2000n bigarrena eduki zutenen erdiak (3.190) 2002an hirugarrena edukiko balute, laguntzen zenbatekoak (15.533.100 Euro) aurrekontua gaindituko luke. Esan daiteke, beraz, aurreikusitako aurrekontua nahikoa ez izatea gerta daitekeela.

IV.- ONDORIOAK

Euskadiko EGBk berresten du Dekretu proiektu bati aldarazpen sakonak egin behar zaizkiola, Irizpen honen Ohartarazpen Orokorretan eta Berariazkoetan adierazitakoaren ildotik, eta uste du, aldi berean, Dekretu honen sorburu den Seme-Alabak dituzten Familientzako Laguntzen Erakundearen Arteko Plana berrikusi behar dela, eta familia bizitza eta laneko bizitza bateratzea erraz dezaten neurri eragingarriak hartu behar direla, euskal herritarrek benetan nahi duten beste seme-alaba eduki ahal izan dezaten.

Bilbon, 2002ko ekainaren 5a

O.I. Presidentea
Rafael Puntónet del Río

Idazkari Nagusia
Manuel Aranburu Olaetxea